



**HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2021eko MARTXOAREN 5EKO EBAZPENA, 2021/2022KO IKASTURTEAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDAKO KIDEEN MEREZIMENDUAK BIRBAREMATZEKO URTEROKO PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENEK ALEGATUTAKO MUSIKAKO-JARDUERA BAREMATU BEHAR DUEN BATZORDEA ERATZEN DUENA.**

---

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, 20. artikuluan adierazten duenez, urtero, eta ikasturteak bukatu aurretik, ofizioz egingo da zerrendetan dauden izangaien merezimenduen balorazio bat, aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera.

“Merezimenduen baremoari “ buruzko I. eranskinean, eta Musikako Irakaskuntzari dagokienez, hau adierazten da: Musikako espezialitatean aurreikusitako berariazko merezimenduak barematzeko, batzorde barematzaileak eratuko dira, zeinak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko baitira.

Aipatutako birbarematze-prozesuari hasiera eman behar zaion prozesua iritsi dela eta Musikako espezialitateetarako musikako-jarduera alegatzen duten izangaien merezimenduak barematu behar direla kontuan hartuta,

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Argitara ematea 2021/2022rako urteko birbarematze-prozesuan Musikako espezialitateetarako aipatuko I. eranskineko 5. atalean aurreikusitako merezimenduak baloratu behar dituen batzordearen osaketa.

**Bigarrena.-** Batzordea kide hauek osatuko dute:

Iñaki Iraola Aizpuru (Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionala).  
Elena Cadierno Gómez (CPM "J.C. Arriaga" Bilbao MKP).  
Estitxu Oraá Martínez de Laño (Jesús Guridi Musika Kontserbatorioa).

**Hirugarrena.-** Interesatuak gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 5a